

Besarkada

-I-

Haizea dabil atean,
zakurra zaunka katean.
Egin zaidazu toki txiki bat
zure besoen artean.

-II-

Bi besoezin borobil,
bi besoezin oro bil.
Zure sehaskan nire burua
ahaztu nahiean nabil.

-III-

Dardar naiz, baina bi esku...
Ingura nazazu estu;
nire gorputzak haize bortitzen
batere beldurrik ez du.

-IV-

Amapola bat larrean,
belarria bularrean:
bihotza, gaur zu entzun nahi zaitut
mundua entzun beharrean.

-V-

Petaloak tximeleta,
lilia azal gordeka.
Biluzik nago, jantzi nazazu
hemen hotzak nago eta.



-VI-

Ibaiak zubia hil du,
urtu naiz eta amildu.
Askatu eta utzi erortzen,
utzi joaten, baina bildu.

-VII-

Lore urdin bat negarrez
hasi da ilunabarrez:
marea gora dator, maitea,
bete gaitzala aparrez.

-VIII-

Badatoz haize hegoak,
zure hatsaren beroak.
Utzi uzkuertzen eta laztandu
itzazu nire hegoak.

-IX-

Haizea naiz eta ura.
Besarkada lurrundu da.
Orain aske naiz, zuri eskerrak
berriz sortu naiz mundura.

-X-

Haizea dabil atean,
zakurra zaunka katean.
Nahi al zenuke toki txiki bat
nire besoen artean?

Uxue Alberdi (2015)

Hiztegia

zaunka: zakurra txanpaka, saingaka
sehaska: ohakoa, ninien ohe ttipia



dardar: ikara

amapola: mitxoleta, landapinta



urtu: gesaldu, beratu
amildu: erori
ilunabar: iluntze, ilunsenti



apar: hagun



uzkurtu : gogortu, tinkatu
laztandu: ferekatu
besarkada: besoetan tinkatu
lurrundu: lurren bilakatu

Uxue Alberdi eta Maite Gurrutxaga




Uxue Alberdi, (Elgoibar, Gipuzkoa, 1984) idazleak eta **Maite Gurrutxaga**, (Amezketan, Gipuzkoa, 1983) marrazkilariak "Besarkada" album ilustratua, opari bat bezala sortu dute, triste dagoenarentzat edo besarkada bat behar duen pertsona ororentzat.

"Besarkada bat eskatzen duen haur baten istorioa jarraitu daiteke, eta amaieran bera da beste bati besarkada bat eskaintzen diona."

"Besarkada" hori musika eta bideo moduan eskaintzen dute Internet bidez.

BESARKADA- Uxue Alberdi eta Maite Gurrutxaga:
<https://www.youtube.com/watch?v=tSp1mFQgzl0>



Gure lehen irudipenak (partekatzea)

- a- Zer da olerki, album eta bideo honen gaia?
- b- Zer diozu ilustrazio horietaz?

Hiztegia hobekiago ulertzeko

- a- Zer da aipatzen duen "zure sehaska", egiazko nini ohe ttipi bat ala irudizko sehaska bat?
- b- Zer da aipatzen duen "lore urdin bat negarrez", berezko erran-nahian da?
- c- Aurki itzazu irudizko erran-nahian diren beste erranaldi zenbait eta gainmarra.
- d- Zein dira zuretzat bitxienak, (Ibaiak zubia hil du?) politenak...?

Seinaleak aurkitzea

- a- Zerk erakusten dizu *Besarkada* olerkia dela?
- b- Non emanak dira errimak, zein lerroetan?
- c- Zure ustez zertarako balio dute errimek olerki batean?
- d- Zenbat estrofa dira?
- e- Aditzik gabeko eta aditza jokatu gabea duten erranaldiak aurki itzazu.
- f- Nola erranen zenuke olerki hori: gora eta ozenki ala eztiki xuxurlatuz?


Sentsazioak irudikatzeko eta amets egiteko

- a- Sentsazio horiek sailka itzazu:
zakurra zaunka katean – ingura nazazu estu- amapola bat larrean- hemen hotzak nago- lore urdin bat negarrez- marea gora dator, bete gaitzala aparrez-...

Ikusmena	entzumena	hunkimena	usaimena	dastamena

- b- Zein da (dira) gehienik irudikatuak diren zentzumenak *Besarkada* olerki, album edo bideoan?
- c- Zergatik poetek horrelako irudiak erabiltzen dituzte?
- d- Binaka irakur ezazue, aldizkatuz, eta azken estrofa elkarrekin, besarkatuz.

Idaztea



- a- Olerki bat igor ezazu karta postalez. Aitzinaldean, ezker aldean maite duzun olerki baten zati ttipi bat kopia ezazu eta eskuinaldean hartzailearen helbidea. Gibelaldean, marrazki batez ilustira ezazu.

